

Ene Olentzero maitea:

Esan beharra dago hasieran ez nuela beste gutun bat idazteko asmorik, ezta gogorik ere baina, jada egoera ikusita ondo birpentsatu ostean, hemen nagokizu berriz zure laguntza eske.

2018, uztailak 8:

“Atzokoaren ondoren gaur hilda esnatzeko itxaropena neukan, ondo badakit aske izatea jadanik ez dela posiblea, eta tamalez heriotza nahiago dut atzokoa errepikatzeaz baino. Ene Olentzero, gorputza minduta daukat, aurpegia odolez beteta eta arima tristuraz gainezka. Inork ez zigun esan horrelakorik jasan izan beharko genuela, izan ere, jakin izana, beste bide bat hartu egingo nukeen, baina inoiz ere ez dizkizute gauza baten alde txarrak esaten, ez, hauek zure begiez ikusi beharko dituzu, baina momento horretan ezin izango duzu beste aukera bat hartu, nahi ez baduzu ere, jarraitzera behartuta egongo zara. Gaur berriz eusten saiatuko naiz eta agian sortearekin bihar guztia bukatuta egongo da.”

Lehenengo aldiz irakurri nuenean nire aitak idatzitako pasarte hau ez nuen ezer ulertzen, zertaz zegoen hain beldurtuta? Zergatik zeukan hiltzeko asmoa?

2019, uztailak 10:

Ez dakit nola baina gaur goizean lauki formako leku txiki eta itxi batean esnatu naiz, edo hobeto esanda kanpoko oihuak esnatu nau, zer gertatzen ari da kanpoan?

Derrepentean soinu hotz eta indartsu batek korrika egitera behartu nau, lasterketa moduko zerbait sortu da, jendeak oihuka, korrika, bultzaka, zerbaitez ihes egiten balira bezala ari dira. Hau guztia oso arraroa da.

2019, uztailak 12:

4 egun, soilik 4 egun behar izan ditut ulertzeko pertsona haiek niganetik eta nire adiskideengandik ihes egiten ari zirela, ez dakit zergatia, ezta arrazoiak ere.

Oraintxe aitaren pasarte hura iritsi zait burura, eta hitzak zentzu osoa berreskuratu dute, aitaren beldurra zainetan barrena sentitu dut, eta gauza batez konturatu naiz; hau jolas moduko bat dela pertsonentzat, jolas berekoi eta mingarria, baina haien begietan berriz ez zen hori islatzen, poztasuna eta harrotasuna baizik, hispanoa izatearen harrotasuna alegia.

Ez dakit gutun hau bukatuko dudan ala ez, hori espero dut lagun, baina geratzen zaidan indar eta duintasunarekin mundu harropuz hau zentzu txiki batean hobetuko duen gauza bat eskatu nahi nizuke; jolas honekin bukatzea, minarekin bukatzea, izan ere hauek nire aitaren arima eramane zuten eta agian nirea laster ere.

Amak beti esaten zidan, guztiok bizitzan zehar desira bat eskatzeko gaitasuna genuela, baina gero ondorioak jasan behar genituela. Beno, hau da nire desira, arima gehiago ez eramatea, pertsonak "arteak" deitzen dioten horrekin amaitzea, eta agian horrela nire aitak antzinan eta nik orain zainetan daukadan beldurra joan egingo zait, agian horrela animalioak eta pertsonak bakean biziko gara.

Eskerrik asko eta besarkada bero bat.

Zure lagun mina, zezena.